

EAJ-PNVk Guardian Laudion jarraitzeko konpromisoa berretsi eta euskal erakundeen lana babestu du

- *Alderdi jeltzaleak azpimarratu du labea itzaltzeko prozesua programatzen eta kontrolatzen ari direla, eta inbertitzaileek neurri hori ezagutzen eta babesten dutela, jardueraren etorkizuna bermatzeko*

Laudiok, 2025eko urtarrilaren 30ean – EAJ-PNVk Guardianen egungo egoera argitu nahi du eta lasaitasun mezua helarazi nahi die langileei, baita Laudioko eta Aiara eskualdeko herritar guztiei ere. Azken orduetan zabaltzen ari diren informazio nahasien aurrean, iturri ofizialei jarraiki, alderdi jeltzaleak azpimarratu du lantegiko labea itzaltzea ez dela berehala eta atzera bueltarik gabe ixtea, baizik eta programatutako eta teknikoki kontrolatutako prozesua dela, haren segurtasuna eta etorkizuneko bideragarritasuna bermatzeko.

Prozedura hori Eusko Jaurlaritzako, Osalaneko eta Industria eta Ingurumen Saisetako teknikariak ikuskatzen ari dira. Gainera, Guardianeko jarduerarekin jarraitzeko interesa duten inbertitzaileek guztiz informatuta daude prozesuari buruz, eta proiektuan sartzea bermatzeko biderik onena dela uste dute. "Euskal erakundeen artean modu serio eta koordinatuan ari gara lanean, lantegiaren bideragarritasuna eta Laudioko enpleguaren babesia bermatzeko".

Industriarekiko eta tokiko enpleguarekiko konpromisoa

EAJ-PNVk berretsi egiten du Guardianeko langileei eta haien familiei erabateko babesia ematen diela, bai eta Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak lantegian industria-jardueraren jarraipena ziurtatzeko egiten dituzten ahaleginei ere. "Guardianen eta bere enpleguen etorkizuna lehentasuna da erakundeentzat, eta erantzukizunez lan egiten jarraituko du Laudioko jardueraren jarraipena bermatuko duen irtenbide bat lortzeko", adierazi du alderdi jeltzaleak.

Hala ere, eskualdearen etorkizunarekiko konpromisoa ez da soilik egungo enpleguei eustean geratu behar, baizik eta aukera berriak sortzean eta tokiko ekonomia bultzatuko duten industria-proiektuak erakartzean. Laudio eta Aiarako lurraldea, oro har, leku lehiakorak, berritzaileak eta inbertsiorako erakargarriak izan behar dira. Horretarako, "eskualdeko eragile guztiek, politikoez, ekonomikoez eta sozialez, haien garapenean laguntzeko erantzukizuna dugu. Esperientziak erakusten du euskal erakundeekin etengabe eta koordinatuta lan egitea dela aurrera egiteko estrategiarik onena, gizartearen eta ekonomiaren aurrerapena soilik geldiarazten duten diskurtso eta mezu ezkorretan erori beharrean", bukatu dute EAJ-PNVtik.